

# Fonetika eta fonologia

## 4. GAIA: Azentuerak

*Euskal Ikasketak lizentzia, 1. urtea*  
2021-22 ikasturtea

# Egitura

1. Azentuera sistemak munduan
2. Euskararen azentuerak

# Egitura

1. Azentuera sistemak munduan
2. Euskararen azentuerak

# Hizkuntzaren 'musikalitatea'

- Hizkuntzen 'musikalitateaz', azentuak, doinuak eta intonazioak ematen dute kontu.
- Hizkuntza guztiek dute doinu eta intonazioa.
- Hizkuntzetako esaldi edo perpausak ez dira izaten hitz-kate lauak.
- Bestela...  
soinua 'robotikoa' litzateke.

# Hizkuntzaren musikalitatea

- 1-Inongo intonaziorik gabe.



- 2-Doinua duen perpausa.



(baina biak dira ordenagailu batek sortutakoak)

# Zer da azentua?

- Silaba batek hitz batean hartzen duen nagusitasuna.

σ   σ   σ   σ   σ

# Zer da azentua?

- Silaba batek hitz batean hartzen duen nagusitasuna.

[σ<sup>1</sup> σ σ σ σ]<sub>hitza</sub>  
a mo na re na

# Eta zer ez da azentua?

- Azentua ez da marka ortografiko bat.
- Azentua ez da hizkuntza edo barrietate batean trebatua ez dagoen hiztunak erakusten duen 'kanpotar efektua'.



# Azentua nola gauzatzen da akustikoki?

- F0 edo oinarrizko maiztasuna (Hertz).
- Iraupen luzeagoa (milisegunduak).
- Intentsitate handiagoa (dezibelioak).

# Hizkuntzen sailkapena (azentuerei dagokienez)

- **Doinu-hizkuntzak** (silabek berezko doinuak dituzte eta hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- **Doinu-azentuzko hizkuntzak** (azentuen doinu mota desberdintzen dute, eta hauek hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- **Indar-azentuzko hizkuntzak** (azentu mota bakarra; azentuen doinuek ez dituzte esanahiak desberdintzen; kasu batzuetan azentuaren kokapenak bai).


# Hizkuntzen sailkapena (azentuerei dagokienez)

- **Doinu-hizkuntzak** (silabek berezko doinuak dituzte eta hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- Doinu-azentuzko hizkuntzak (azentuen doinu mota desberdintzen dute, eta hauek hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- Indar-azentuzko hizkuntzak (azentu mota bakarra; azentuen doinuek ez dituzte esanahiak desberdintzen; kasu batzuetan azentuaren kokapenak bai).

# Doinu hizkuntzak

- Hitzaren silabek berezko doinu bat dute (goikoa, behekoa, erdikoa...).
- Hitzunak buruz jakin behar du zein doinurekin ahoskatu hitz bakoitza.
- Honelako hizkuntza asko daude Afrika hego-mendebaldean eta Asia ekialdean.

# Doinu hizkuntzak munduan



# Doinu hizkuntzak: Kantonesa

- Silabek berezko doinuak dituzte.
- 6 doinu posible daude: goikoa, erdikoa, behekoa, behekoa jaisten, behetik gorakoa eta behetik erdirakoa.
- Kontsonante eta bokal berdinek, zein doinu duen arabera, esanahi desberdina izango dute.

# Doinu hizkuntzak: Kantonesea

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = poema (goiko doinua)

# Doinu hizkuntzak: Kantonesea

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = **saiatu** (erdiko doinua)



# Doinu hizkuntzak: Kantonesa

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = **materia** (beheko doinua)

# Doinu hizkuntzak: Kantonesea

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = **denbora** (beheko doinua jaisten)

# Doinu hizkuntzak: Kantonesa

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = **eragin** (behetik gorako doinua)

# Doinu hizkuntzak: Kantonesa

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:

si = **hiria** (behetik erdirako doinua)


# Doinu hizkuntzak: Kantonesea

*...berriz...*

# Doinu hizkuntzak: Kantonesa

- Adibidez, “si” silabak 6 hitz desberdin osatzen ditu:
  - si = **poema** (goiko doinua)
  - si = **saiatu** (erdiko doinua)
  - si = **materia** (beheko doinua)
  - si = **denbora** (beheko doinua jaisten)
  - si = **eragin** (behetik gorako doinua)
  - si = **hiria** (behetik erdirako doinua)

# Doinu hizkuntzak: Kantonesa



# Hizkuntzen sailkapena (azentuerei dagokienez)

- Doinu-hizkuntzak (silabek berezko doinuak dituzte eta hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- **Doinu-azentuzko hizkuntzak** (azentuen doinu mota desberdintzen dute, eta hauek hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- Indar-azentuzko hizkuntzak (azentu mota bakarra; azentuen doinuek ez dituzte esanahiak desberdintzen; kasu batzuetan azentuaren kokapenak bai).



# Doinu-azentuzko hizkuntzak


- Doinu desberdinetako azentuak desberdintzen dituzten hizkuntzak: serbiera, kroaziera, suediera, norvegiera, Limburgiako nederlandera...
- Hitz azentudun eta azentugabeak desberdintzen dituztenak: Tokyoko japoniera, somaliera...  
...eta iparraldeko bizkaiera!

# Doinu-azentuzko hizkuntzak: Suediera

- Adibidez, suedieraz bi azentu mota daude:
    - Doinu-beherakada bat silaba azentudunean **amaitzen** dena.
    - Doinu-beherakada bat silaba azentudunean **hasten** dena.
- ...eta azentu-motaren arabera, esanahi desberdineko hitzak izan daitezke....


# Doinu-azentuzko hizkuntzak: Suediera

- Adibidez: “ánden”-ek bi gauza adieraz ditzake azentu motaren arabera:



# Doinu-azentuzko hizkuntzak: Suediera

- Adibidez: “ánden”-ek bi gauza adieraz ditzake azentu motaren arabera:




# Hizkuntzen sailkapena (azentuerei dagokienez)

- Doinu-hizkuntzak (silabek berezko doinuak dituzte eta hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- Doinu-azentuzko hizkuntzak (azentuen doinu mota desberdintzen dute, eta hauek hitzen esanahiak desberdintzen dituzte).
- **Indar-azentuzko hizkuntzak** (azentu mota bakarra; azentuen doinuek ez dituzte esanahiak desberdintzen; kasu batzuetan azentuaren kokapenak bai).

# Indar-azentuzko hizkuntzak

- Bi motatako hizkuntzak:
  - Estatikoak (azentua beti silaba berdinean):  
Adibidez, frantsesa (*chansón, jambón, papeterie...*)
  - Dinamikoak (azentua silaba ezberdinetan):  
Adibidez, gaztelania (*término, término, terminó...*)
- Oso hedatuak Europan: ingelesa, gaztelania, frantsesa, errusiera...

# Hizkuntzen sailkapena azentuaren posizioaren arabera



# Egitura

1. Azentuera sistemak munduan
2. Euskararen azentuerak



# Euskararen azentuerak

- 3 azentu sistema edo mota nagusi.
- Azentuera mota bakoitzean, hainbat azpimota.
- Tarteko motak ere (e.g. Goizueta).

# Euskararen azentuerak

(I. mota): Erdialde-mendebaldeko azentuera

(II. mota): Ekialdeko azentuera

(III. mota): Bizkaiko iparraldeko azentuera

# Euskararen azentuerak

(I. mota): Erdialde-mendebaldeko azentuera

(II. mota): Ekialdeko azentuera

(III. mota): Bizkaiko iparraldeko azentuera

# Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Azentua hitzaren bigarren silaban kokatzen da.
- Azentuera hau daukaten mota zenbaitetan, bokalez bukatzen diren hitz bisilabadunetan azentua hitzaren lehen silaban doa.
- Adibideak:
  - *emákumea, gizóna, mutíla baina néska, óna, bíde.*

# Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Hasierako azentua duten lexikoki markaturiko hitzak daude.
- Hauek mailegu eta konposatuak dira gehienbat.
- Adibideak:
  - *básoa* (< gazt. *vaso*, cf. *basóa*),  
*lénigusua*, *béstea*, *égia*.

# Erdialde-mendebaldeko azentuera

- Azentuera zabalduena da:
  - Gipuzkoa gehienez.
  - Bizkaiko hego-ekialdean.
  - Nafarroako mendebaldean.
- Euskalki guztiek izandako azentuera komuna izan zela proposatua izan du Mitxelenak.
- Gaur egun ez dugu uste inoiz Bizkaiko ipar-mendebalderaino heldu zenik.

# Euskararen azentuerak

(I. mota): Erdialde-mendebaldeko azentuera

(II. mota): Ekialdeko azentuera

(III. mota): Bizkaiko iparraldeko azentuera

# Ekialdeko azentuera

- Hitz gehienetan, azentua hitzaren azkenaurreko silaban erortzen da.
- Sistema honen barnean, noizbait hitz guztiek azentua silaba horretan izan zezaketen.  
azentuera estatikotik -> dinamikora
- Adibideak:
  - *gízun, gizúna, néska, alhába.*



# Ekialdeko azentuera

- Hitz zenbaitek amaieran daukate azentua.
- Hauek azken silabako diptongo edo bi bokal bat egitearen ondorio izaten dira.
- Beraz, garai zaharrago batean silaba azentuduna azkenaurrekoa zen kasu hauetan ere.
- Adibideak:
  - *alhába* + abs. sg. -a > \**alhabáa* > *alhabá*, *néska* + -a > \**neskáa* > *neská*, *ardũ*, *ardáũ* (< \**ardano*), *añái* (< *añári*), *orgã* (< \**organa*).

# Ekialdeko azentuera

- Zubereraz aurkitzen da gaur.
- Erronkarieraz ere bazen.
- Antzeko azentuera bat berreraiki daiteke zaraitzueraren epe zaharragoetarako.
- Hala ere, dokumentatutako zaraitzueraren azentuera ezberdina da.

# Euskararen azentuerak

(I. mota): Erdialde-mendebaldeko azentuera

(II. mota): Ekialdeko azentuera

(III. mota): Bizkaiko iparraldeko azentuera

# **Bizkaiko iparraldeko azentuera**

- Doinu azentuan oinarritua.
- Azentua morfologikoki zehazten da.
- Ezberdintasun lexiko bat dago hitz azentudun eta azentugabeen artean.
- Ia euskal hitz guztiak azentugabeak dira.

# Bizkaiko iparraldeko azentuera

- Azentu gabeko hitzak azentu gabeko morfemekin konbinatzean, azentua aditzaren aurrean agertzen da.
  - La/guná\etorri da.
- Azentua amaieran agertzen da hitzak isolaturik daudenean.
  - La/guná\
- Aditzaren aurrean ez daudenean, ez dute azenturik:
  - La/guna berandú\etorri da.

# Bizkaiko iparraldeko azentuera

- Hitz azentudunek morfema azentudun bat edo gehiago dituzte (erro edo izkietan).
- Euskal hitz eta izki singular gehienak azentugabeak dira.
- Hitz mailegatu, konposatu eta izki pluralak azentudunak izan ohi dira.

# Bizkaiko iparraldeko azentuera

- Azentua lexikoki azentuduna den morfemaren aurreko silaban kokatzen da hizkera gehienetan.
- Doinu igoera automatiko bat dago esaldiaren bigarren silaban.
- Azentua beheranzko doinu kontorno bezala gauzatzen da silaba azentudunean.
  - Hau da, doinu altutik jaitsi silaba azentudunean.
    - La/gún\ak etorri dira.

**Bizkaiko iparraldeko azentuera**

*lagunen (sg.) amúma ikusi dot*

la.gu.nen      a.mú.ma

| | |      | | |

B A A      A A+B B



**Bizkaiko iparraldeko azentuera**

*lagúnen (pl.) amúma ikusi dot*

la.gú.nen      a.mú.ma

| | |      | | |

B A+B B      B A+B B

# Bizkaiko iparraldeko azentuera

